



222. zenbakia

URRIA 2022

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Ezjakinean – Philip Larkin

“ Arraroa ezer ez jakitea, inoiz seguru ez egotea
 zer den benetako, zer zuzen, zer erreal;
 usteka mugatzen aritu beharra
 edo hala dirudika,
 auskaloka.

Arraroa ez jakitea gauzen nondik-norakoa:
 haien trebezia behar dutena aurkitzeko,
 haien formaren sena, eta bihien artezko ereintza,
 eta aldatzeko borondatea.

Bai, arraroa da
 honelako ezagutza janztea ere-haragiak
 bere erabakiekin inguratzen gaitu-
 eta haatik, bizi osoa zehazgabetasunetan iragatea,
 ze hiltzen hasten garelarik ere
 ez baitakigu zergatik. ”

(*Armiarma, Euskarari ekarriak*, 2022
 euskaratzailea: Juanjo Olasagarre)



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

1 saria. KULUXKAN. Maria Esandia

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira irailaren 5an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Mututasun selektiboa.*

07

Albisteak

13

Kronika. *Denok bat, Jubilatuen Elkarte*

14

Erreportajea. *Kalkolitikoko aizkora aurkitu dute Eltzaburun*



18

Berezia. *Pulunpeko argazki leihaketa*

22

Aspaldiko kontuak. *Non dira gure ihoteak*

25

Ardo Frexkoa. *Euskalkia eta batua*

26

Ekimenak. *Mendialdeko aktibazio ekonomikoa*

27

Kirola. *Xuban Kañamates aizkolaria, 1. mailan*



28

Zer irakurri. *Ostiral kulturalak itzuli dira*

29

Jaiotzak eta heriotzak. *Abuztua*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Mututasun

selektiboa

Antsietateak mututzen zaituenean

Urriaren 30a mututasun selektiboaren nazioarteko eguna da. Antsietatearekin eta fobia sozialarekin lotzen den nahasmendua da: zenbait egoeratan blokeoa eta hitz egitea galarazten du. Orokorrean ez dira kasu asko ezagutzen, baina eskualdean egon badira, eta gertutik ezagutu nahi izan ditugu.

Alejandra Andresen alabak gurasoekin eta lagun gutxiarekin soilik hitz egiten du, eta normalean, helduren bat inguruan ez badago. Orain hamar urte ditu, baina txikitatik gertatzen zaio: "Izaskun Iruñean jaio zen, baina gero Argentinara joan ginen bizitzera. Han, hiru urterekin ez zen oraindik eskolara joaten, baina auzokideekin jolastera irteten ginenean, ez zuen hitzik egiten. Lotsatia zela uste nuen, besterik gabe, eta aurrerago askatzen joango zela. Baina bost urte zituela Iruñera itzuli ginenean, gelan sartu zenean, guztiz blokeatu zen". Andresen jaioterria da Argentina.

Josune Ilundain Iruñetik Erasora etorri da bizitzera. Orain 32 urte ditu, eta Izaskunek ez bezala, ez zuen diagnostikorik jaso. Mututasun selektiboa duela gutxi ezagutu zuen, eta berari gertatzen zitzaionarekin lotura duela uste du: "Alejandra Apeztegiberriko ostatuan ezagutu baino lehen, irakaslea den lagun batekin hizketan, esan zidan Haur Hezkuntzan mututasuna zuen neskati bat zuela klasean. Gero Alejandrarekin hizketan, gauza gehiago ikusi nituen amankomunean. Ikertzen hasi nintzen eta bereizgarritasun horietan nire burua ikusten nuen". Ilundainek ikasgelan bakarrik izaten zuen blokeoa, ezin zuen gelakideen aurrean hitz egin. Gelatik kanpo, ordea, lagunekin, hitz egiteko gai bazen.

Ez da lotsa, blokeoa da

Ilundainek hiru urtetan sumatu zituen lehenengo seinaleak, haur hezkuntzan hasi eta klasean sartu zenean: "Asko abesten genuen eta ariketak biribilean eserita egiten genituen. Sentitzen nuen ez nuela bertan egon nahi, ez zela inguru atsegin bat niretzako, baina irakaslea ogi puska bat zen, oso gozoa. Ez zen berak egindako ezerengatik, baina toki berri bat zen eta horrela sentitu nintzen".

Izaskunen kasuan ere, klasean azaleratu zen egoera. Alejandra Andrés: "Bost urte zituela konturatu ginen. Etxeko ataritik ateratzerako bere aurpegia beste bat zen. Paralizatua bezala gelditzen zen, gelan berokia kendu behar zitzaion, bere tokira eramaten zuten eta eseriarazi egiten zuten. Ez zion inori

begietara begiratzen, aurpegiko muskuluak ez zituen mugitzen, ez zuen keinurik egiten. Nik orduan ez nekien zer gertatzen zen, irakasleak esan zigun".

Zoila Berastegi Izaskunen orientatzailea izan da Oihanzabalen eta Lehen Hezkuntzan tokatu zaion lehenengo kasua izan da: "Haur Hezkuntzan, askotan, iragankorra izaten da: hiru urterekin beste ikastetxe batera doaz eta denbora behar izaten dute tokira, espaziora, taldera egokitze".

Josune Ilundain:
Zigortu egiten
ninduten, baina nik
argi utzi nahi dut ez
nuela nahita egiten



▲ Josune Ilundainek Hutsunen argitaratutako marrazkia eta olerkia



Presioa, areriorik handiena

Adituen gomendioa argia da mututasunaren kasuan: hitz egin dezan inolaz ere presiorik ez egitea. Kepa Mateorena Jauntsarasko Oihanzabal eskolako zuzendaria da: “Hasieran azeleragailua sakatu behar zela uste genuen, baina konturatu ginen ezetz, azeleratu izan bagenu, agian blokeoa handiagoa izango zen”. CRENAtik ere —eskoletako kasu berezietan laguntzen duen organismo publikoa—, aholku bera eman zieten.

Alejandra Andresek ere uste du huts bera egin zuela hasieran: “Izaskuni galdetzen nion ‘beno, noiz hasiko zara hitz egiten?’ Eta Izaskunek ni lasaitzeko esaten zidan, ‘datorren astean’. Baina ez zuen egiten... frustratu egiten nintzen eta berari presioa handitzen nion. ‘Ezin dut, ama, hemen uzten ez didan zerbait dut’ esaten zidan, eztarria seinalatuz. Orduan ulertu nuen ezin nuela behartu. Horretan ere ingurukoekin borrokatu egin behar duzu nolabait, gizartea haserretu egiten baita”.

Josune Ilundain ere ez zuten ulertzen, are gutxiago duela 20 urte: “Irakasle batzuek lagundu nahian tratuak egitera behartzen ninduten. Nik ozen irakurri nahi nuen, baina ez zitzaidan ateratzen, eta frustrazio hutsa zen. Beraiek nire hitza betetzen ez nuela ikusten zuten, zigortu egiten ninduten, eta nire arazoa zela ulertu nuen. Etxean ere esaten zidaten ‘zu laguntzen ari dira, zuk zergatik ez duzu eskatutakoa egiten?’. Nahi ez banu bezala. Baina nik argi utzi nahi dut ez nuela nahita egiten”.

Berastegi orientatzaileak ere, denborak errespetatu behar direla azaldu digu: “Pertsona bakoitza mundu bat gara, gure barne prozesua dugu eta pausu hori eman ahal izateko agian barnetik tekla asko ikutu behar dira”.

Lotura, ordea, gakoa

Josune Ilundainentzako inflexio puntua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan etorri zen. Zazpi ikasgai suspenditu zituen, eta, nahiz eta sei errekuperatu, tutoreak errepikatzeraz behartu zuen: “Niretzako trauma bat izan zen hasieran, baina gero ongi etorri zitzaidan. Oraindik mantentzen ditudan lagunak egin nituen eta niretzako aldaketa ekarri zuen tutore bat egokitu zitzaidan. Lan oso onak egiten nituela nabarmentzen zuen, eta ahots ozenean esaten zuen, gainera. Hor konturatu nintzen, ‘hara, ba gauzaren bat ongi egiten dut’. Hitz egitearen kontuarekin ere lasai egoteko esaten zidan, eta, horrela, poliki-poliki joan nintzen askatzen”.

Halako batean, gelan hitz egin zuen, Munduaren Historia hautazko ikasgai: “Sei ikasle bakarrik geunden klasean, horrek ere



Antsietateak sortutako blokeo batean datza mututasun selektiboa

Alejandra Andrés:
‘Ezin dut, ama,
hemen uzten ez
didan zerbait dut’,
esaten zidan
eztarria seinalatuz.
Orduan ulertu nuen
ezin nuela behartu

lagunduko zuen. Irakasleak nire lanari hamarrekora jarri ziola esan zuen, eta zergatik azaldu. Gainontzekoek ere oso lan ona egin zutela aipatu zuen eta ahots goran irakurtzea proposatu zigun. ‘Nahi baduzu, bestela, txanda pasatu’, esan zidan, baina irakurri egin nuen. Bukatu nuenean uste nuen iskanbila sortuko zela edo txaloka hasiko zirela, baina ez zen horrela izan, txanda pasatzen jarraitu zuten eta listo”.

Izaskunen kasuan ere, tutorearekiko lotura izan da gakoa. Kepa Mateorena, zuzendaria: “Binkulazioa edo lotura da gakoa. Lehenengo eta bigarren urtean tutore bera izan zuen eta oso ongi moldatu ziren, hitz egitea ere lortu zuen! Gogoratzen naiz irakaslea negarrez etorri zela “hitz egin dit, hitz egin dit!”. Hura poza! Tartean, sistemak asmatu genituen komunikatzeko, berak nahi zuenean idazteko arbeltxo bat, adibidez”.

Zoila Berastegi orientatzaileak bereziki Oihana Urraren lana azpimarratzen du: “Hor tutoreak egin zuen lana. Oihana zoragarria zen eta oinarria bion arteko lotura izan zen. Izaskuni espazio seguru bat ematea lortu zuen, pazientzia handi-handiarekin, alternatibak eskainiz, baina errespetu handiarekin”. Dena den, helduen eta umeen kodigoak oso ezberdinak direla azaldu digu:



"Izaskunen lagun taldean bazegoen lagun bat beti esaten ziola 'noiz hitz eginen didazu? Mesedez, hitz egin nazazu niri, mesedez, mesedez!' eta handik gutxira neskatala honekin hitz egiten hasi zen. Oihana (Urra, tutorea) eta biok barre egiten genuen, helduok kontu handi handiarekin ibili behar ginelako, ez presionatzeko, eta umeen artean, ordea, mekanismoak bestelakoak dira".

Landa eremua, lagun

Aipatu bezala, bost urte zituela diagnostikatu zuten Izaskun. Orduan terapiari hasi zen, baina Alejandra Andres amak argi zuen, aldi berean, beste aukeraren bat ere aztertu behar zuela: "Hogeit hamar haur baino gehiagoko gelan oso gogorra izan behar zuen, presio handiegia. Hor

Kepa Martiorena:
Pertsona bakoitzak
ezaugarri
ezberdinak ditu, hori
da aniztasuna

erabaki genuen herri txiki batera joatea, eta hona etorri ginen. Nik uste dut asmatu genuela. Prozesua oso luzea da, baina Izaskunek gauza askotan aurreratu du: gorputza ez zaio zurrin jartzen, barre egiten du, lagunekin atsedendian ere hobetu du, buruarekin baietz edo ezetz esaten du, irakasleak begiratzen ditu...".

Kepa Mateorena ere pozik da, nahiz eta onartzen du zenbait gauzek ez dutela lagundu, izurriteak edo tutore aldaketek, adibidez: "Gu behintzat saiatu gara, beste batzuek agian esango zuten 'beno, hor jarraitu dezala, ez du molestutzen eta aurrera'. Hitz egiten ez baduzu, hogeiko klase batean, ikusezin bihurtu zaitezke... Hemen talde txikiagoa da, eta behintzat komunikazio minimo bat lortzen duzu. Gu saiatu gara eta lortu dira gauzak: lehenengo tutoreari hitz egin zion, bigarrenari audio bitartez...".

Datorren urtean Izaskun Larraintzarko ikastetxera pasako da, DBHra. Zoila Berastegi izanen du orientazailerik, ezaguna. Berastegik

onartzen du institutuko estrukturak prozesua zailtzen duela, baina landa eremuko ikastetxe izaten jarraituko du, eta horrek lagunduko duela uste du: "Nik uste dut ikasleei egiten zaien jarraipena oso gertukoa dela, ikastetxe txiki bat da, landa eremuan gaude. Jarraipen eta laguntza hori eskainiko zaio, ez dut zalantzarik".

Aniztasuna, eskoletan erronka

Hori guztiarekin batera, hezkuntza sistemari hobetzeko ere eskatu behar zaiola uste dute. Kepa Mateorena: "Arriskua badago irakaskuntza medikalizatzeko: hiperaktibitatea, mututasuna, bestelako arazoak... beti bilatzen zaio izen bat. Agian aniztasunaren inguruko gauzarik zailena da ulertzea ume bakoitza diferentia dela. Hamahiru haur baldin badituzu, hamahiru kasu dituzu. Batzuk errazago egokitzen dira eta beste batzuk ez. Irakaskuntza klasikoak guztiak sartu ditu kaxoi berean, eta horrek batzuk bazterrean uzten ditu. Hori oso gogorra da. Baina pertsona bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu eta hori da aniztasuna. Eta hori erronka bat da administrazioarako, baliabideak eta prestakuntza behar direlako".

Josune Ilundainek ere kurrikulumenetik harago joatea eskatzen dio hezkuntza sistemari: "Orain trastorno asko daude, antsietatearekin lotuak, ikasteko zailtasunekin lotuak... horiek ezagutu behar dira eta laguntza eman behar da. Bestela, bakoitzak ahal duena egin behar du eta 'ahal duena salbatu dadila' da jarraibidea. Horrek bidezkoak ez diren egoera asko ekartzen ditu". Alejandra Andresek ere, Izaskunen amak, bide berean hitz egin du: [Horrelako kasuak] hezkuntza arloan onartu beharreko zerbait dira, hezkuntza egokitu egin behar da. Askok kostatzen da, sistemak modu jakin batekoa izan zaitezten eskatzen dizulako.



Oihanzabal eskola, Jauntsaratsen



Aritzuko garbitegia berreskuratze lanak egin dituzte

Aritzuko adineko jendeak ongi gogoratzen zuen herrian bazela garai batean garbitoki publiko bat. 60. hamarkada inguruan bertara joateari utzi zioten, eta teilatuak eta harresiak kendu eta estali egin zuten orduan. Azken urteotan, ordea, jendea gune hura berreskuratze gogoz zegoen, eta azkenean, uda honetan, lanean jarri dira herritarrak.

Isabel Oiartzunek honela kontatu zigun ekimena irratian: "Auzolanean elkartu ginen, oraindik harraskak gelditzen ziren, eta berritzeari ekin genion". Herritarren ekarpenaz gain, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lan babestuko kideak jo eta su aritu dira azken bi hilabeteetan garbitokiaren eraberritze lanetan. Aurreko lanetan bezala, honetan ere monitore baten laguntzarekin aritu da taldea.

Bestalde, lanak ia amaitu badituzte ere, Aritzuko herritarrek inaugurazioa egin nahi dute, eta aukera hori aprobetxatu, garbitoki horretan garai batean ibiltzen ziren emakumeak omentzeko. "Horietakoren bat bizirik dago oraindik, eta gure asmoa da omenalditxo bat egitea, benetan lan inportantea baitzen egiten zutena", azaldu zuen Oiartzunek. Adi egonen gara datozen hilabeteotan, omenaldi horren berri emateko.



Emaiza ederra lortu dute ▲



TXAKUR JANARIA

CARLOS 660781595
Pili 650206699





iritzia

*Bakartxo Blanco Gaskue,
Goizargi Santxo Gaskue eta
beste zenbait guraso,
Enbor Beretik Guraso Euskaldunon
taldearen izenean*

Euskaldunak eskolatik kanpo, eta harro gaude

2022ko iraila

Euskara eta seme-alabak. Hauek harro ere euskaraz eskolan, etxean, lagunartean aritzeaz.... Baina zer gertatzen da eskolaz-kanpoko ekintzekin?

Ikasturte berriari begira jarri gara dagoeneko guraso asko, eta gure haurren eskolaz kanpokoak aukeratzen. Baina urtero bezala, gainditu beharreko paretatzar batekin topo egin dugu. Ikerlari eta miaketa lanak egitea egokitu zaigu gure umeak euskarazko eskaintza izan dezaten. Batera eta bestera deitu, han eta hemen galdetu eta gure umeek musika, marrazketa, zirkua, karate, eskalada, antzerkia, igeriketa, yoga,... EUSKARAZ egiteko oztopoak besterik ez: batzuetan eskaintzarik ez dagoela, besteetan irakaslea euskalduna bai baina ezin dela taldea euskalduna izanen den ziurtatu, ume erdaldunek ere izena- emateko eskubidea dutela, lehentasuna umeen adin eta jakintza mailari ematen zaiola taldekatzeak egiterakoan, etab. Beraz, bigarren maila batean geratzen da euskara eta ume euskaldunak, Nafarroako hiriburuan eta inguruko auzo zein herri ugaritan.


Hauek guztiak eskaintza pribatuko zein publikoko zentroetan topatu ditugu. Talde euskaldunen falta botatzen dugu Kirol Federazioetan, administrazioak kudeaturiko Musika eskoletan zein Kirol instalazioetan, entitate pribatuen eskaintzetan... Zergatia zein ote? utzikeria, edo adore falta, edo erlaxazioa, edo.... Bigarren mailako hizkuntza gisa tratatzea akaso? Edota euskara sobera gutxi maitatzea eta euskaldun izateaz harro ez egotea? [...]

Euskara bizigarri delako eta bizimodua euskaraz egitea bermatu beharreko eskubide bat delako... ahaldundu gaitezen euskaratik eta euskaraz, eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzuen guzti horiek, euskara eskaini dezazuen eskatzen dizuegu. Gure txikiak euskaldun oso izan daitezen, zuek ere euskaldun izan zaitezten.

Memoria lantzeko tailerrak, Anuen

Memoria lantzeko ikastaroa abiatu dute irailean Olaguen (Anue). Uda hasieran, Maria Jesus Beuntza herrikideak bere burua aurkeztu zuen tailer hori eskaintzeko, jubilatutik aurretik horretan aritua baitzen. Bailarako adineko jendeak hasieratik interesgarritzat jo zuen proposamena, eta irailaren erdialdean ekin diote ikastaroari.

Momentuz, hamar bat lagun ari dira biltzen, baina ateak zabalik dituzte oraindik interesa duen edonorentzat. Memoria lantzeko estrategia desberdinak ari dira ikasten. Ariketa fisikoa egiten den bezalaxe, buruari ere ariketa pixka bat egitera behartzea onuragarria dela eta, helburu horrekin hasi dira biltzen jubilatutak Anuen.





Jantokia estreinatu dute Larraintzarko ikastetxean

Urriaren 3an sartu dira jantokira, berriz ere, Larraintzarko ikastetxeko ikasleak. Berritzeko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko lanak egin dituzte udan. Obrak irailaren 30ean bukatu zituzten, azkeneko ukituak faltan, eta urriaren 3an sartu dira ikasleak. Paretak isolatu eta berritu eta leihoak aldatu dituzte, eta, horrela, energia-eraginkortasuna hobetzeaz gain, akustika ere hobetu dute.

Erki Construcción Sostenible SL. enpresa arduratu da lanez eta guztira 265.272 euroko inbertsioa egin behar izan da. Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu ia osorik, Ultzamako udalari eskainitako 80.000 euroko dirulaguntzaren bidez, eta EH Bilduk nafar aurrekontuetan helegitez sartutako 140.000ko laguntza zuzenaren bidez.



Horrela zegoen jantokia irailaren 29an ▲

Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak....

Bermuta: Etorri gure pintxoz beteriko barraz goatzera eta dastatu gure etxeko frito berriak.

Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero.



Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak.

Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean.

Asteburuak:

Asteburuko Menu berezia km·0 eta karta.



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Umeendako bidexka txiki bat ireki du MTB Basaburuak

'Maimur' da umeei zuzendutako bidexka berri honen izena (izaki mitologiko txiki batzuk omen dira maimurrak). 400 metro ditu, BTT edo mendi bizikleta jaitsiera praktikatzeko erraza, Jauntsaratsen. Manu Alvarezek horrela deskribatu digu: "Malda leuna du, bihurguneak errazak eta salto txikiren bat egin daiteke. Praktikatzeko oso erraza da".



Bost urteko Gorka García ▲

Bidexka berria Jauntsaratsen dago, ur biltegitik hasi eta kiroldegirantz jaisten da: "Hor pistarekin gurutzatzen da momentu batean, hileritik gora doan pistarekin, eta pistatik jaitsi behar dira beste hamar bat metro, eta berriz eskuinetara sartu. Hor badago bidexka zahar bat garbituta, eta hortik ia kiroldegiraino sartzen da".

Urriaren 8an inauguratu zuten, KDD Enduro teknika altuko jaitsiera lasterketa egin zuten asteburuan.



Lau urteko Malen Lizartza ▲



Ezk-esk. Peio Lizartza, Malen Lizartza, Gorka García, Libe García eta Manu Alvarez. ▲

Aurretiazko
Borondateen
Agiria **(ABA)**

**Nire bizitzaren amaierari
buruzko erabaki garrantzitsuetarako
nik aukeratzea
erabakitzen
dudalako**



Andrea Aldaregia imoztarra, Iera Iturriagarekin, Plazaz Plazako txapelduna

Ados pilota klubak antolatu du, bigarrenkoz, Plazaz Plaza jaialdia, eta Etxaurin izan zen finala, irailaren 24an. Lehiaketa estu-estua izan zen, oso ongi jokatu zuten bi bikoteek, baina, azkenean, Aldaregiak eta Iturriagak osatutako bikotea gailendu zen, 22 eta 20, Ane Mendiburu eta Maddi Barrocalen aurka. Latasakoa (Imotz) dugu Andrea Aldaregia.

Horrela, hitz politak jaso dituzte bi bikoteek Ados pilotako sare sozialetatik: "Ikaragarria gaur Etxaurin bizi berri dugun finala! Txapelketa guztian egon den emozioa, joko ona eta maila handia gaur ere agerian geratu dira lau pilotariek jokatu duten partida

handiarekin. Gaur bi txapel zeuden jokoan baina lau pilotariek merezi zuten txapela".

Iera Iturriaga leitzarrak ere, Andrea Aldaregiaren bikoteak, mezu hunkigarria jarri du sare sozialetan bikotekideari, aurkariei eta Ados Pilotako kideei zuzenduta: "Zer esan atzoko egunez! Aurkariek hain ongi jokatzen duenean zure hoberena ateratzea behartzen zattue eta atzo halaxe izan zen! Ane Mendiburu, Maddi Barrocal txapelik gabeko txapeldunak atzo! Andrea Aldaregia ze ilusioa zurekin txapela irabaztea. Eskerrik asko kantxan eta kantxatik kanpo dena emateagatik!"



Andrea Aldaregia Plazaz Plazako finalean, Etxaurin ▲



Jubilatuen elkarte, Errioxan barna

Aurreratu genizuen bezala, urriko txangoan Errioxako San Millan de la Cogolla ikustera joan ginen. Aparte xamar dagoenez, goiz mugitu ginen, 10:00etarako iristeko. Gosaria egin ondoren, egun politaz disfrutatzeko prest geunden.

Bi monastegiak ikusi genituen. Goikoa, Suso, hiru taldetan banatuta bisitatu genuen, beraiek daukaten autobus txikian joan ginen ikustera. Gidak erakutsi zigun monastegia eta IV. mendetik honako historiaz hainbat kontu esan zizkigun, azken 15 mendeetan zehar, zein egoera desberdinetan aurkitu den argituz.

Beheko monastegia, Yuso, ikustera bi txandetan sartu ginen. Handia denez (8.000m²) lasai hartu genuen, gauza asko ditu ikusteko!

Gidak, gure laguntzaile estimagarriak, hango kontuez zabal eta sakon aritu zitzaigun, eraikuntzaz, egin zen moduz eta han dauden edukiez mintzatu.

Glosetari buruz hitz egin zuenean, han dauden euskarazko lehen idatzitakoak aipatu zizkigun:

“Izoqui dugu”, gaur egungo



Yusoko monastegi barnean dagoen elizan

euskaran: liluragarri dugu, gogoa pizten digu.

“Guec ajutu ez dugu”, gaurko euskaran: Guk lagundu ez dugu, ez dugu nahikoa egin.

Itzulpen zehatzean ez dago adostasunik, oraindik.

Monastegian barna ibili ginen eta gauza guzietaz mintza zitzaigun gida hango historia luzea guretzat laburtzen saiatuz.

Bi monastegiak ikusi ondoren, herritik barna ibili ginen, eta bazkal aurreko aperitiboa hartzeko tartea izan genuen.

Ederki eta patxadan bazkaldu eta gero, batzuk museko partidetan murgildu ziren ohitura duten moduan eta besteak herria ikustera edo lasai aski terrazan solastera atera ziren.



Sakristia barnean

Arratsaldeko seietan abiatu gien etxera bueltan, egun bikaina pasa izanaren sentsazioarekin eta gure historiaz zertxobait gehiago ikasi genuelakoan.

Udazkenean ikastoaroak hasiko ditugu eta honezkero badakigu Yoga eta Ipar Martxa (Nordic Walking) gauzatuko direla. Animo dantzariak, oraindik ez baita taldea sortzeko adina pertsona apuntatu.

Museko txapelketa irailaren bukaeran hasi zen eta abendura arte jokatu dira partidak Larraintzarko bentan, ostiraletan.

Hurrengo txangoan Erriberri-Olite ikustera joanen gara eta izanen duzue horren berri datorren alean. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatuen Elkarte

Duela 4.000 urteko aizkora, Eltzaburun

Marina Mujika eta Jose Luis Erro senar-emazteek aurkitu zuten aizkora, Arburuko mendatean, Eltzaburutik gertu. Covid-19ko izurritearen erdian, egunerokoa mugatua, entretenimendu eta motibazio izugarria izan zuten aizkorarekin, zer izan zitekeen ikertzen hasi baitziren.

2021eko otsailaren 28a. Izurritearen erdian, Marina Mujika eta Jose Luis Erro, Eltzaburuko herritarrak, pasiatzera atera ziren, ohi bezala eta ohiko bidetik. Egun hori, ordea, berezia izanen zen, zerbait ikusi zuten bide bazterrean.

Marina Mujika: "Bat-batean ikusi nuen, lurrean azaleratua. 'Hara, hau zer da?', pentsatu nuen, eta dena jasotzen dugunez, hartu egin genuen. Franko pisatzen zuen eta etxera eramatea erabaki genuen. Usaina ere oso berezia zuen, baita kolorea ere, berdexka". Jose Luis Erro: "Paseo hori ez dakit zenbat alditan egiten dugun, bide bera, baina egun hartan Marina ohartu egin zen. Nik eskuetan hartu nuenean pisua zuela sentitu nuen eta horregatik pentsatu nuen ez zela harri soil bat".

Ondoren, aizkoraren ibilbidea luzea izan da.

Ikerketan, Euskal Herritik Madrileraino

Zerbait garrantzitsua izan zitekeen susmoarekin koinatu arkeologo bati bidali zioten argazkia eta hark Aranzadi Zientzia Elkartearekin jarri zituen harremanetan. Aranzadiko Jesus Tapiak baieztatu zien aurkikuntzaren garrantzia eta elkarteko kidea den Angel Armendariz donostiarrarengana jotzeko gomendatu zien. Armendariz Aurrehistoria irakaslea izan da Kantabriako Unibertsitatean, eta, orain, klaseetatik erretiratu, ikertzen jarraitzen du. Armendarizek Madrilerira bidali zuen aizkora, konposizioaren analisia egin ziezaioten CSICen —Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusian—.

Analisiek ondorioztatu zutenek, kobrezkoa da aizkora, eta

artsenikoa eta nikela ere badu. Angel Armendarizek azaldu digunez: "Nikela Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako beste pieza batzuen ezaugarria izaten da, beraz, kobrea tokikoa izan liteke. Oraindik ez dugu jaso berun isotopoen analisisen emaitzarik, horrek agian gehiago zehazteko aukera emanen digu".

Jose Luis Erro:
Nik eskuetan hartu nuenean pisua zuela sentitu nuen eta horregatik pentsatu nuen ez zela harri soil bat



Angel Armendariz Gutierrez ikertzailea ▲



Eltzaburun aizkorak egiteko molde bat agertu zen, 60. hamarkadan ▲



Aurrikuntza gehiago Eltzaburun

1951n, Jesus Elosegik —Arkeologoa eta Aranzadi Zientzia Elkarteko sortzaileetako bat—Eltzaburutik gertu dagoen Mugakosoro edo Mugasoron hainbat dolmen aurkitu zituen. Hain zuzen ere, horietako batetik ehun metrora ehiztari talde batek kobrezko aizkorak egiteko molde bat aurkitu zuen, horrela azaltzen du artikulua batean, Aranzadiko kidea izan zen Jose Maria Merinok: “1963an moldea ikusteko eta aztertzeko aukera izan nuen (...) ehiztari talde batek aurkitua, labanak zorrozteko harri gisa gorde zuten, eta, horregatik, labanen igurtzien alterazioak ditu alde batean”.

Angel Armendariz: “Mugasoroko moldea aizkora lauak (aurkitutakoaren mota berekoak) urtzeko erabili zen, beraz, nahiz eta aurkitutakoen tamaina desberdina den, garai berekoa izan behar du, Kristo aurreko 2000. urtekoa gutxi gorabehera. Dolmenak, orokorrean, zaharragoak dira, Neolitikokoak, baina ondoren ere horiek erabiltzen jarraitu zen, eta garai berriagoko objektuak agertu dira. Hala ere, urtzeko molde bat ez zen heriotza eskaintza ohi izaten, ziur aski kasualitatez galduko zen dolmenetik gertu. Gutxienez Neolitikotik zonaldean pertsonen kokalekuak zeudela adierazten dute dolmenek. Aizkora eta moldearengatik pentsa dezakegu Metal Aro hasieran oraindik Mugasoroko zonaldera



▲ Marina Mujikak eta Jose Luis Errok Arburun aurkitutako aizkora

joaten zirela, beraz, ziur aski kokalekuek jarraitzen zuten bertan”.


Aizkora gehiago Nafarroan

2021ean aurkitu zuten Marina Mujikak eta Juan Luis Errok Eltzaburuko aizkora laua, aurretik, 2020an mota bereko beste bi agertu ziren Nafarroan. Bata Legarian (Lizarraldean) eta bestea Erreniegako mendatean. Oraindik aztertzen ari dira, eta emaitza guztiekin Nafarroako Arkeologia Lanak aldizkarian argitaratuko dituzte Armendarizek eta bere ikerketa kideek.

Osotara, Nafarroan, Armendarizen arabera, mota honetako 15 aizkora aurkitu dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, 26; eta, Trebiñon, beste bi.



Eltzaburu



Legaria



Alto del Perdón

▲ 2020tik aurrehistoriako hiru aizkora aurkitu dituzte Nafarroan. Eltzaburun, Legarian eta Erreniegan.

Arbasoen aztarnen bila

Gipuzkoarrak dira Marina Mujika eta Jose Luis Erro. Oreretakoa Mujika eta Donostiakoa Erro. Erroren ama, ordea, Eltzaburukoa zenez, bertan pasatzen zuen uda. Horregatik, 1986an, Iruñera lanera joan ondoren, Eltzaburura joan ziren bizitzera.

Mujikak onartzen duenez, betidanik gustatu zaizkio harriak eta antzinako gauzak: “Gure arbasoen aztarnak direlako. Aurrikuntza honek sekulako ilusioa egiten du! Pentsatzea hainbeste urte dituela eta zuk aurkitu duzula! Gainera otsailaren 28an izan zen, otsaileko azken egunean. Seinale bat dirudiala!”.

Errori ere kobazuloetan sartzea gustatzen zitzaion txikitari eta arkeologiari buruzko **Misión Rescate** telebista programako karneta ere egin zuen: “Kuriositatea dut jakiteko duela 4000 urte Eltzaburu nolakoa izan zen, nola eta non bizi zen jendea eta Armendarizi galdetu nion. Bailaran biziko ziren ziur aski, eraikuntzak zurezkoak izango ziren, herri txikiak”.



▲ Jose Luis Erro eta Marina Mujika



June, Maddi, Naroa eta June, Maikarekin. Atzean Goldaratz



(Ezker-eskuin) Inma, Jose Javier, Alazne, Alberto, Josune eta Jorge, Santurbe ermitan.



JOTA SÜren emanaldia Gaskueko Santurbe ermitan. Josune, Alazne, Jose Javier eta Alfontso



Gaskueko pestetan. Goitik behera eta ezk.-esk. Andregoto Oiartzun, Iraia Urriza, Basagaitz Oiartzun, Aitor Larrinaga, ibai Urriza, Hodei Garcia, Eneko Rezabal.



Haur jolasak Gaskueko pestetan



Gaskueko gazteria pestetan



Eltzaburuko jaiak, erronda koperan



Oskia, Amaia, Elene, Nahia, June eta Alaia. Auza




Oier Mondragon, Miguel Iraizoz eta Imanol Urritza, Zenozko motozerra erakustaldiaren ondoren



Eltzaburuko bestak, kopa errondan



In Tempore abesbatzak kontzertu ikusgarria eskaini zuen Santurbeko basilizan. 115 herritarreki ikusi zuten.



Argazki lehiaketa

Maria Esandia eta Jon Villanueva ama-semeak, aurtengo sarituak

Pulunpeko VIII. Argazki Lehiaketako irabazleen izenak ezagutu ditugu irailaren bukaeran, eta hara non, Arraitza joan dira lehen hiru sariak: Maria Esandia Huarizenak izan dira bi argazki onenak, eta honen seme Jon Villanueva Esandiak eskuratu du hirugarren postua. Sorpresaz harrapatu ditu sariak biak ere. Argazki ederrak jaso ditugu aurtengoan, beraz, zorionak parte-hartzaile guztiei eta segi argazkigintzarekin jokatzeko!

Pulunpeko argazki lehiaketan parte hartu duzuen lehen aldia izan al da?

MARIA: Nik duela urte asko parte hartu nuen lehenbizikoz, agian 15 urte pasatu izan dira! Geroztik, ez nuen berriz parte hartu inoiz, eta aurtengoan, Pulunpe aldizkaria begiratzen ari ginela ikusi genuen iragarkia, eta esan nuen: 'aurkeztu egingen naiz!'.
JON: Nik lehen aldiz hartu dut parte, bai. Amarekin batera, elkarren arrimuan errazago animatu ginen parte hartzera.

Azaldu iezaguzue zer den zuen argazkietan ikusten dena...

MARIA: Lehendabizikoa saria jaso duen argazkia oso kuriosoa izan zen. Paseatzera atera nintzen — ia beti kamera nirekin daramat paseatzera irtetean —, eta lepozuriarekin egin nuen topo. Hortxe ari zen jostaketan, ni geldigeldi geratu nintzen, hura ere bai, eta loak hartu zuen segituan. Bost edo hamar minutuz egon nintzen berari begira, lotan zegoela, eta hainbat argazki atera nitzkion. Esnatu egin zen halako batean, begira geratu zitzaidan momentu batez eta alde egin zuen ondoren. Oso kuriosoa izan zen!

Bigarren argazkia ere bilatu gabea izan zen, elurretan pasiatzera irten nintzen eta artaldearekin egin nuen topo Usillaga inguruan. Ardi guztiak begira gelditu zitzaizkidan, eta pentsatu nuen, 'tira, hemen argazki bat dago...'.
JON: Nire kasuan ere, lagunekin buelta bat ematera atera nintzen txakurrak hartuta, eta etxetik hurbil, belardi batean koartza eta zikoinak topatu nituen, eta hurbilean katu bat zegoen. Lehiaketako oinarrietan originaltasuna eskatzen zuten, eta pentsatu nuen argazki ona izan zitekeela. Etxera lasterka bueltatu, kamera hartu. Eta argazkia egin nien.


“ Maria Esandia:
Paseatzera
ateratzen naizenean
beti daramat kamera
nirekin ”

Aspalditik datorkizue argazkilaritzarako zaletasuna?

MARIA: Betidanik gustatu izan zait niri, bai, eta urte asko daramatzat hara eta hona argazki kamera hartuta. Egia da inoiz ez dudala ikastarorik edo prestakuntzarik jaso, egiteke dudan zerbait da hori. Iritsiko da noizbait eguna.



Maria Esandia eta Jon Villanueva ama-semeak izan dira irabazleak ▲



▼ 1. Saria. KULUXKAN. Maria Esandia



▲ 2. Saria. ELURRETAN. Maria Esandia


“ Jon Villanueva:
Lehiaketaren
oinarrietan
originaltasuna
eskatzen zuten, eta
argazki ona iruditu
zitzaidan ”

JON: Nik ez dut horrenbesteko afiziorik, egia esan, baina argazki bat aurkeztu nahi nuen eta horrela izan zen.

MARIA: Tira, etxean kamera beti daukagu eskura, eta asko jotzen dugu guztiok. Agian nik erabiltzen dut gehien, baina etxeko besteek ere bai; alabari ere gustatzen zaio.



▲ 3. Saria. ANIMALIEN ARTEAN BETI ONGI. Jon Villanueva



Berezia

Argazki lehiaketa




AMABI. Irati Barberena



AZKENEAN IRITSI ZEN EURIA. Julen Renedo



HERRIA. Iosune Lopez



ILUNTZEA. Jon Villanueva



IONTZA. Xabi Arraras



JAUZI. Julen Renedo



OLENTZERORI GUTUNA.
Maite Marturet



UDAZKEN LOREAK. Ane Arraras



ZALDIAK. Maite Marturet



Garai zaharreko ihoteak

Igoako ihoteak (1)

Gure ihoteen historia gerrak moztu zuen. Alde batetik, gerrak berak, ez baitzen gauza txukuna zenbaitzuk beren bizia arriskatzeko ibiltzeak eta beste batzuk pestetan. Eta gero, Erregimen berriak debekatu egin zituen, frankismoa oso gogorra izan baitzen moralaren aldetik.

Gerra aurrean nola izaten ziren

Igoan, gainerako herri gehienetan bezala, debekatzea etorri aurretik ihoteak bere garaian izaten ziren, Garizuma aurrean, aurreko hiru egunetan. Jakina, Garizuma urtero aldatzen denez, ihoteak ere dataz aldatzen ziren; hori bai, igandez hasi eta asteartean buka. Hori zen egiten zena, baina igoarrak nonbait pestazaleak izaki eta **Hausterre egunean**, hauts hartzea tokatzen zen egunean ere, aitzaki-maitzaki, pesta egiten zuten.

Lehenbiziko eguna

Ihote igandean ostatura biltzen ziren mutilak eta 9etan ateratzen ziren bertatik mezara joateko, akordeonista ere berekin zutela.

Meza ondoren, ostatura itzuli neskekin batera eta dantza izaten zen. Bukatu eta bakoitza bere etxera.

Atsaldez bezperak izaten ziren eta ondorean dantza, plazan edo etxeren batean. Garai hartan **Arraldean** izaten zen dantza. Ilun ezkilak jo eta etxera neskak guziak eta mutil gehienak ere bai. Hori bai, Igoan borda asko zenez, bordetako neskak beren mutil-laguntzailea izaten zuten laguntzeko.

Bigarren eguna, zingar eta arraultze asean.

Astelehenean, **ihote bigarrena**,

goizeko hamarretan hasten ziren mutilak errondan, bordaz borda, puska biltzen, akordenistarekin batean. Beren saski, zaku eta gerrenez horniturik, arraultze, ogi, urdai eta txistor biltzeko. Etxe bakoitzean bi dantzaldi, alaitasunez gainezka.

Erronda bukatu eta bakoitza bere etxera bazkaltzera.

Atsaldez, aurreko egunean bezala, dantza.

Hirugarren eguna, bide beretik

Ihote hirugarrenean, gauza bera egiten zuten, baina herrian, etxez etxe, eta ostatuan bukatuz; eta bertan bazkaria, bildutako

puskekin gehienbat: banabarrak, arraultze egosiak, txistorra eta urdaia.

Eta ondoren kafea, kopa eta purua (Kopa eta purua garai haietan ez zen oso ohikoa)

Atsaldean, berriz, txatxutu egiten ziren mutilak, nahiz ez denak.

Mutil-nagusiak, meneko mutil guziei agintzen zien zein etxetara joan bertatik neskak dantzara ekartzeko. Etxe horretan, berriz ere mutilak kafea eta kopa hartuko zuen eta neskak emandako piperropilla kolkoan sar eta harro-harro dantzalekura hurbilduko ziren elkarrekin.



Igoan ihoteetako fotografiarik opatu ez eta Beruetera jo dugu. Hemen, Berueteako 1967ko ihoteak.



Lehen dantzaldian mutil guziak dantzara joko zuten, baina bakoitza ekarritako neskatzarekin. Hori zen araua eta handik aurrera nahi zuenak edo ahal zuenak ahal zuenarekin.

Ilun ezkilak jo ondoren neskatzak etxera eta mutilak ostatura afaltzera.

Afal ondoren, ostatuko neskatzak aukera ederra dantzatzeko, giroa halakoa izaten baitzen!

Hausterre egunean ere bai

Hausterre Eguna, Garizumaren haste, pestak eta musikak ez ziren libre, baina lgoan, oraindik ere gose ziren eta hala edo hola ihoteekin segitzen zuten. Goizeko zortzietan, lau mutil ibiltzen ziren eskean, bi, herriko etxeetan, eta beste biak, bordetan. Musikarik gabe.

Eta eguerdian bazkaria mutil-kuadrilla osoak, hori bai, bezperan baino arinxego: zopa, banabarrak, tortilla, kafea, kopa eta purua.

Eta mutil-nagusiak eta mutil-lagunak kontuak egin ondoren bakoitzari zegokiona kobratu eta afaltzerako prestatu.

Afaria ere bazkariaren gisa berekoa izaten zen.

Mutil-nagusia eta mutil-lagunaren aukeratzea.

Dena dela, afariarekin ez zen dena akabatzen, inportantzia handiko eginbeharra izaten zen ondoren: hurrengo urte guzirako, urtebeterako, mutil-nagusia eta mutil-lagunaren aukeratzea. Eta hori kartak botata egiten zuten.

Beste herri batzuetako zertzelada batzuk

Igoako ihoteen antza izaten zuten gainerako herrietakoek ere. Hala ere, herri gehienetan ikusi ahal izan dugu bazkari eta afariak ihote egun guzietan izaten zirela, ostatuan edo etxe partikular batean, baina, Hausterre Eguneko buztan hori gabe.

Gero, lgoan puska biltzearekin konformatzen ziren baina beste herri batzuetan zikirioaren bat edo txekorren bat hiltzen zuten. Berritze bat antzematen da honetan.

Herri frankotan oilo biltzea ere izaten zen; hori neskatzak bizi ziren etxeetan egiten zen.





Garai zaharreko ihoteak

Eta neskak mutilei piperropilak eskaintzea, izan ihoteetan izan pestetan, gauza ohikoa zen.

Eta txatxuak ere, lgoan bezalatsu izaten ziren. Txatxuena nahiko hedatua zegoen ohitura zen. Eta

mutiak neskez txatxutzea ere franko arrunta zen.

Mutil-nagusi eta mutil-lagunak, lgoan ez bezala, herri askotan **Urteberritan** edo **Erregetan** izaten ziren aukeratuak.

lgoako ihoteetako kontu horiek guziak **Salbadoreneko** nagusiak, Tomas Ezkurra Lasarte zenak kontatuak, 1981eko urtarrilaren 3an Juan Garmendia Antropologoari. Tomasek 82 urte zituen orduan.



▲ Igoarrak San Urbanon. Kakulliko dauden hiru horietako bat Etxezarreko Pedro Miguel Arregi dugu, erdian dagoena. Gainerako guzien izenak atera ditzatela igoarrek. Ez dut uste hain zaila denik.



Txurdan

Hiztegia

Garizuma: Elizaren berrogei eguneko aldia, Hausterre Egunean hasi eta Aste Santura arte irauten duena, Pazko misterioa prestatzekoa (Dataz aldatzen da urtero eta ilargiak agintzen du)

Hausterre Eguna: Asteazkenez izaten da eta Garizumaren hasiera da. Egun horretan buruan errautsa hartzeraz joaten da elizara kristaua.

Txatxua: moxorroa. Disfraz. Beste esanahi batekin ere ibiltzen dugu hemen: baratzetan jartzen dena txoriak uxatzeko.

Araua: norma

Esaldiak

Garizumaren haste=Garizumaren hasiera (Esateko modu hau ez da hemen ibiltzen; Iparraldean darabilte eta nafarroan ere bai, Baztanen eta abar)

Tomas zenak (“zenak” hori oraingo gazteek ez dute erabiltzen, baina komeni litzateke ibiltzea, zehaztasuna eta dotoretasuna ematen baitio hizkerari)

Herritarren arteko sozializazioa

Ihote, pesta eta, horrelakoetan, auzoen arteko harremanak lantzen ziren. Errondan edo etxez-etxe ibiltzen zenean, soinu aldemenean, edari pitta bat barnean... errazagoa eta ageriagoa izaten zen elkarren arteko elkartasuna edo. Gehiago, auzoko etxe bateko sukaldara sartzen zenean: errespetua erakutsi behar zitzaient nagusi-etxeoandreei, adiskidetasuna azaleratu, auzotasuna nabarmendu eta xalotasunaz mintzatu. Eta supazterrean etxetik atera gabe

bizi ziren aitatxi eta batez ere amatxi xaharrez, zer esan? Musu ematera ez zen inor ausartzen, baina emanen balute bezala izaten zen.

Grazia eta ausardia zuenak ere erakutsi nahi izanen zituen bere dohainak. Irri algarak eskertzekoak izaten dira beti.

Egiazkoak ziren kontu hauek guziak? Ez dakit, baina pozgarriak ziren enetzat. Herritartasuna bizkortzen zutela ez dut dudarik.



Tx



Baina, badakigu euskalkia?

Euskalkia. Hitz arraro xamarra eginen zaio bati baino gehiagori. Euskararen dialekto bakoitza da euskalkia: Bizkaiko euskalkia, Zuberoako euskalkia... Zazpi dira euskalki edo dialekto printzipalak. Hala ere, esan dezakegu Larraungo euskalkia, Ultzamako euskalkia, nahiz berez ez diren euskalkiak, azpi-euskalkiak baizik. Gaur zertxobait esan nahi dut euskalkiak direla eta.

Gure arrebak esan zidan behin:

-Hemen nola esaten da euskias
“**partido de pelota**”

Eta nik, pentsatu gabe,

-**Pillota partidue.**

-Bai? Ez, ez da horrela esaten.

-Zeeer? Ezetz?

-Ez al duzu esaten **mus partide**? Eta ez al zenuen **pillota partide** esaten?

-Oh, oh, oh...Arrazoi oso-oso duzu.

Sinetsi nahi ez duenak, ikus beza hiztegia: **partida** jartzen du eta ez pilota **partidua**.

Beste behin, lagun batekin ari nintzen hizketan eta hizpidera atera eta galdera egin nion:

-Hik nola esaten duk “Yo tengo que ir”

Eta berak,

-**NiK** joan behar diat.

-Ez, ez, hemen ez duk horrela esaten: **NI** joan behar diat.

-Zer esaten duk? Nik, sekula.

Eta batek bai eta besteak ez, bota nion:

-Galdezaiek, galdezaiek, gurasoei.

Eta laster, 5 minutu baino lehen, bere izeba bat azaldu zen, eta zapla bota zion.

-Zu, nola esaten duzu “nostros tenemos que ir”

-**GU** joan behar diagu.

Zur eta lur gelditu zen, herriko hizkera ederki jakinki eta ez zen ohartu ere egin ergatiboa ez

dugula kasu honetan sartzen, komuntadura beste modu batean egiten dugula.

Bai, bai, kasu hauek herriko hizkeraren bi maitaleenak izan ziren.

Zer gertatzen da beste askotan, euskara erdi zokoratua dutenekin? Aunitzetan hamar urte betez gero erdaraz besterik aritzen direnekin? Hor hasiko zaizkizu askorik pentsatu gabe, herriko euskara ongi balekitez bezala: *gure herrian horrela esaten da edo gure etxean ez da horrela esaten...*

Jakina da, batzuetan gaizki ikasi, beste batzuetan ohartu ere ez, eta hor botatzen ditugula hau eta beste, erabat oker, erabat gure usteko... niri gertatu zitzaidan bezala.

Gaur Ardo frexkotik Ardo frexkora ari izan gara; ez dezagun alperrik gal.



Txurdan

Hiztegia

Euskalkia: Tokian tokiko euskara.

Ergatiboa: Euskararen **K** da ergatiboaren marka. **NiK** egin dut. Pedro**K** ekarri zuen.

Komuntadura: concordancia

Esaldiak eta lokuzioak:

Zur eta lur (harriturik)

Herriko hizkera ederki **jakinki** eta...



Ardo zuri gozoa egiteko mahats biltzen.



▲ Elkarriketa entzun

Mendialdeko ekonomiaren aktibaziorako plana osatzen ari da Cederna Garalur

Landa garapenerako elkarrekin, Mendialdeko eskualdeko 11 udalek eta Plazaola Partzuergoak osatzen dute ekonomiaren aktibaziorako lantaldea. Azken hilabeteetan eskualdeko egoeraren erradiografia osatzeko diagnostikoa egin dute eskualdeko sektore desberdinetako eragileekin elkarlanean. Planaren diseinurako azken txanpan, herritar ororen ekarpenak jasotzeko foro irekia egingen dute. Urriaren 25ean izanen da, Leitzako Herri Aretoan.

Ainhoa Oribe Cederna Garalurreko garapen agenteak Esan Erran irradian azaldu zuenez, eskualdean bizitzeko eta lan egiteko aukera bermatzea da proiektuaren helburuetako bat, bertan proiektuaren bat martxan jarri nahi duen pertsona orori horretarako aukera ematea. “Badakigu landa eremuko erronkak zeintzuk diren hiriburu edo herri handietako egoerarekin alderatuta, eta gure eskualdean ere badugu biztanleria lurraldean finkatzeko erronka, kalitatezko enplegua eta ekintzailetasuna sustatuz”, zioen.

Aktibatze horretarako, baina, eskualde mailan funtzionatzea beharrezkoa dela uste dute landa garapenerako elkartetik, eta hori bultzatzea ere bada egitasmoaren beste helburuetako bat. Izan ere, azken urteotan beste esparru batzuetan egon den lankidetzeta eta elkarlana —Elikadura Mahaiaren

sorreran, esaterako— eredu hartuta, ekonomiari lotutako gainontzeko esparruetan ere antzeko norabidean pausoak ematea da asmoa.

Datozen hiru urtetarako plana

Diseinatzen ari diren plana datozen hiru urteetan egon den martxan eskualde zabalean. Urteko lehen sei hilabetean findu duten diagnostiko fasearen ondoren, ekintza plana da diseinatzen ari direna. Eskualdean garapen-ahalmen handiena duten bost sektore hautatu dituzte planean lantzeko:

- Elikadura osasuntsu eta jasangarria
- Energia berdearen industria
- Industria, oro har
- Turismo jasangarria
- Merkataritza eta ostalaritza

Urriaren 25ean Leitzako Herri Aretoan egingen den foro irekian parte hartzera deitu ditu Cederna Garalurrek eskualdeko esparru desberdinetako eragile eta, oro har, herritarrak. Arratsaldeko 17:00etan izanen da ekimena, eta bertan parte hartu nahi duenak aurrez izena eman beharko du 606 40 86 14 telefonora whatsapp bat bidaliz edo mendialdeaplana@cederna.es helbidera idatziz.



Ainhoa Oribe,
Cederna Garalurreko garapen
agentea:

“Azken urteotan hasi gara eskualde mailan indarrak batzen, bakoitza bere bailara edo herritik harago joanda, eskualde bezala funtzionatzen eta proiektuak ikuspegi zabalagoarekin lantzen. Bide horretan beste pauso bat eman nahi dugu, sektore ekonomiko desberdinekin lanketa eginez”.



Eskualdeko eragile desberdinekin elkarlanean ari
dira plana osatzen ▲



Xuban Kañamares aroztegiarra, Nafarroako bigarren mailako txapeldun

Gaztetatik datorkio Xuban Kañamares aroztegiarrari (Atetz) aizkolaritzarako afizioa, eta Kañamares familiako txapelen bildumari gehitzeko beste bat lortu berri du. Hain zuzen, Nafarroako gizonezkoen bigarren mailako aizkora txapelketako irabazle suertatu zen irailaren 18an, eta garaipen horri esker, lehen mailan lehiatuko da orain aizkolari gaztea.

23 minuto eta 58 segundo. Horixe izan zen Kañamaresek Uharten jokatu zen finalean lanak amaitzeko behar izan zuen denbora. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko enborra moztu behar izan zituzten parte-hartzaileek, eta minutu inguruko aldea atera zion bigarren postuan gelditu zen Patxi Mindegia. Biak ala baiak arituko dira datorren denboraldian lehen mailan, dena den.

Horrela gelditu zen sailkapena Uharteko finalean:

1. Xuban Kañamares: 23' 58"
2. Patxi Mindegia: 24' 55"
3. Jesus Etxeberria: 28' 18"
4. Goizeder Belza: 29' 31"
5. Mikel Indakotxea: 30' 50"

Lehenago ere aritua zen lehen mailan Xuban Kañamares, baina 20 urte zituela jaitsi zen. Bigarren aldiz arituko da punta-puntako mailan, beraz, denboraldi honetan.

Aizkorako lehen mailan jokatu du denboraldi honetan Xuban Kañamaresek

Kañamarestarrak, Euskal Herriko finaletik kanpo

Nafarroako finala igaro eta astebete eskasera, beste hitzordu garrantzitsu bat izan zuen Xuban Kañamares aizkolariak. Irailaren 25ean, Elgoibarren, Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako finalerdia jokatu zen, eta bertan aritu zen lehian Oier Kañamares anaia ere. Hamar aizkolarik jokatu zuten finalaurrekoa, eta Nafarroakoaren lan berbera egin behar izan zuten.

Zoritxarrez, finalerako txartelik ez zuten eskuratu ahal izan Kañamarestarrek Elgoibarko kanporaketan. Zazpigarren postuan

gelditu zen Oier Kañamares, 27 minuto eta 45 segundotan amaituta lanak, eta Xuban, berriz, zortzigarren postuan, lanak 28 minuto eta 6 segundotan amaituta. Euskal Herriko finalean arituko diren aizkolariak ondokoak izanen dira: Jokin Urretabizkaia 'Basozabal', Hodei Ezpeleta, Joxean Etxeberria, Xabier Zaldua, Luis Mari Txapartegi eta Iban Resano. Azaroaren 27an Bilbon jokatu da finala.

Aurtengoan eskualdeko ordezkari izanen ez badugu ere, Kañamarestarren jardunari adi egonen gara aurrerantzean, maila ederra ematen ari baitira guztiak.

Xuban Kañamares, txapela eskuan ▼



▲ Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko enborra moztu zituzten finalean





Zer irakurri


Ultzamako Liburutegia

Ostiral kulturalak itzuli dira!

Zer irakurri edo zer ikusi? Oraingo honetan, liburu eta pelikula pack batzuk proposatzen dizkigu Ultzamako liburuzainak. Askotan kontrakoa iruditzen bazaigu ere, badirelako literatura-lanak hobetzen dituzten filmak, edo, gutxienez, liburuaren mailan daudenak.

Hurrengo ostiralean, haurren txanda izan zen, Dani Martirena eta Ana Ibañezen eskutik. Parte hartu zuten hurrei beren ametsen kutxa eraikitzeko gonbitea egin zieten, eta modu horretan, beren etorkizunari aurre egiten eta askatasunez eta alaitasunez bizi nahi dutena aukeratzen lagundu zieten.

Eta urrian, Ostiral Kulturalak jarduera desberdinekin, dokumentalekin, erakusketekin eta antzerkiarekin, itzuliko dira.



Zorionak Zorionak !



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



NAPARRAREN KASUA

Hilaren 7an Iñaki Alforja eta Iban Toledo zuzendarien Bolante baten historia dokumentalaren proiektioarekin hasiko dugu. 80ko hamarkadaren hasieran, Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea zen Jose Miguel Etxeberria Alvarez, Naparra, desagerrarazi egin zuten. Gurutzatutako komunikatuen, hainbat aldarrikapenen eta axolagabekeria judizialaren aurrean, familia desagertu erantzun bat ematen saiatu zen. Anaiaren desagertu irekitako zauria sendatzeko asmoz, Eneko da berrogei urtetik gora iraun duen bilaketaren lekukoa hartu duena. Eta Enekoren eta bere familaren historia ere bada hau, zuzendariak esaten duten bezala,

“behartutako desagertu batek ez du soilik desagertuaren bizitzarekin amaitzen, uretara botatuko harri batek sortzen dituen uhinen antzera, orbain emozional bat uzten du familiarengan eta gizartearengan”. Eneko bera eta zuzendarietako bat, Iñaki Alforja, gurera etorriko dira.

Ez da ostiral kulturaletan kasu honetaz arduratzen garen lehen aldia: joan den urtean Jon Alonso idazleak bisitatu gintuen bere liburu hau aurkeztera: «Naparra: kasu irekia», gure iragan hurbilenaren amaierarik gabeko historia honi buruzko informazioa osatzen laguntzen diguna. Dokumentala 19:00etan proiektatuko da Larraintzarko Gizarte etxean.



ON KIXOTE

Ordu berean, baina astebete geroago, irailaren 14an, Miguel Goikoetxenadiaren txanda izango da. Behin baino gehiagotan bisitatu gaitu Iluna Producciones taldeko partaideak, entzuleen artean barreak sortaraziz edo, Miguel Hernandez poetari buruzko Con los ojos abiertos antzezlanarekin, hunkipenak negar malkoetaraino eramanez. Oraingoan, barre algara bat baino gehiago eragingo digun komedia batekin dator: On Kixote

Nafarroakoa. Hau da proposatzen diguna: “Mantxako leku batean...”. Gezurra! Nafarroan! “Haren izena ez dut gogoratu nahi...”. Ez dut nahi, ez. Ezin dut. Ezin da akordatu. Ez zuelako bizi izan. Entzun duzu. Lapurtu egin du. Cervantesek nire historia hartu eta alde guztietara eraman zuen. Errotak, erraldoiak, Basajaun, Tartalo, Sanferminak... Gaur, azkenean, egia osoa jakingo dute Nafarroako On Kixoteri buruz.



ULTZAMA ZERUTIK ETA NATURAREN LEIHOAK

Urriaren 21ean, 19: 00etan, Gizarte Etxean, Ultzama beste ikuspegi batetik ikusteko aukera izango dugu. Altueratik. Patxi Aríztegui Ultzama zerutik dokumentala eskainiko digu, non bailarako herri eta toki ezberdinak txori-begiz ikus daitezkeen.

Eta azkenik, urriaren 28an, hilabete honetako erakusketaren bi egileetako batek, Itziar Azpirozek, erakusketaren bisita original bat egingo digu. Bertan, kantu saio bat eskainiko du hainbat musikarik lagunduta. Itziar eta Koke Ardaiz bildu dira euren erakusketan egur, enbor, landare prentsatu, irudi eta naturako hainbat osagairen konposaketak eta eskulturak erakusteko. Gizarte Etxeko sarreran egongo da ikusgai urriaren 10etik 30era Naturaren leihoak izeneko erakusketa interesgarri hau.



Patxi Irurzun,
Ultzamako liburuzaina

2022ko abuztua

2022ko abuztuan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ATETZ Eritzegoiti

Aizia Elortza Rodríguez, Aritz eta Inmaculadaren alaba, abuztuaren 24an sortua.

“ Zorionak gurasoei ”



▲ Aizia etorri zaigu familia handitzera

ULTZAMA Lizaso

Aiur Etxepare Nagore, Goreti eta Asierren semea, abuztuaren 11an sortua.



▲ Aiur, Lizasoko gazteena

Ezkontzak:

Guk dakigula ez da ezkontzarik izan

Heriotzak:

ODIETA Erripa

Yolanda Etsain Idareta, **Bordatzikiko** etxeakoandrea, abuztuaren 16an hil zen, 59 urtetan.



▲ Yolanda Etsain

“ Zure maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





Bete ezazu
despentsa
urte guztirako



martxoak 10 - 30

**Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura**

Oinak lurrean



Eskatu Nafarroa
hegoaldeko oliba-olio birjina
estra, kontserbak, arroza,
pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta ekoizlearen
jatorrizko prezioan.



errigora.eus

